



Arartekoaren 2020R-128-19 Ebazpena, 2020ko urtarrilaren 31koa. Horren bidez, Osakidetzari gomendatzen zaio ondare erantzukizuneko espediente bat berriaz ebatzi dezala.

Aurrekariak

1. Pertsona batek kexa aurkeztu zuen Arartekoan Osakidetzan egin zuen ondare erantzukizuneko eskaera berriaz ebatzi ez zuela eta.

Interesdunak erakunde honetara igorritako dokumentazioaren arabera, ondare erantzukizuneko espedientearen izapidea abiarazi zen Osakidetzako zuzendari nagusiaren 2018ko martxoaren 21eko 233/2018 Ebazpenaren bidez. Urte bereko maiatzaren 11n, kexagileari jakinarazi zitzaion espediente hori Osasun Saileko Ikuskaritza Medikora helarazi zela, nahitaezko txostena egin zezan.

2. 2019ko urtarrilaren 27ko idazkiaren bidez, Arartekoak Osakidetzari espediente horren izapideari buruzko informazioa eskatu zion eta, 2019ko martxoaren 26an emandako erantzunean, haren ordezkari gorenak honako hau adierazi zuen: martxoaren 25ean, Osasun Saileko Ikuskaritza Medikoaren txostena igorri zitzaioela kexagileari, eta alegazioak jasotzeko zain zeudela.

3. 2019ko apirilaren 10ean, erakunde honek kexagileari jasotako erantzunaren edukiaren berri eman zion. Igorri zitzaion idazkian adierazi zen Arartekoaren itxaropena zela bere jardunak espedientearen izapideari bultzada bat emango ziola, baina interesdunak behin eta berriz esaten zuenez kontu horri buruzko berririk jaso gabe jarraitzen zuela, 2019ko irailaren 24an, osasun-erakunde horretan gai horri buruz galdetu zuen berriro.

Azkeneko lankidetzak-etsaera horri erantzunez, 2019ko urriaren 10ean, Osakidetzak Arartekoari berriz ere jakinarazi zion espedientea izapidearen azken fasean dagoela, *"eta litekeena dela datozen egunotan interesdunari espedientearen ebazpenaren berri ematea"*.

4. Nolanahi ere, 2019ko urriaren 24an, prozeduraren izapidegileak hirugarrenez eskatu zion kexagileari ondare erantzukizunaren ebaluazio ekonomikoari buruzko iritzia emateko, eta hamar eguneko epea eman zion horretarako. Erakunde





honetara joan den pertsonak azaroaren lehen hamabostaldian egin zuen ebaluazio hori.

5. Dena den, ebazpen hau egiteko unean, bi hilabete baino gehiago igaro dira une horretatik, eta oraindik ez da espedientearen berriazko ebazpenik eman.

Gogoetak

1. Kexan sortutako arazoa dela eta, lehenik eta behin, berriaz ebazpena emateko betebeharra aipatu behar da, eta prozedura guztietan jakinarazi behar da, edozein dela ere hura hasteko modua, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa) 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bigarrenik, lege beraren 91.3 artikulua adierazitako berriazko ebazpena emateko sei hilabeteko epea aipatu behar da; espezialitate jakin batzuk ezartzen ditu ondare erantzukizuneko prozeduretan.

Amaitzeko, araudiak ezartzen du ere, prozedura hasi zenetik sei hilabete igarota berriazko ebazpenik eman eta jakinarazi gabe, edo, hala badagokio, akordioa formalizatu gabe, ebazpena partikularren kalte-ordainaren aurkakotzat jo ahalko dela.

2. Arartekoak sarritan salatu du administrazioaren isiltasuna oso kaltegarria dela, isiltasuna aplikatuz gero, herritarrak babesgabetasun egoeran geratzen direlako, ez baitakite beren eskaerei lotuta zer asmo duen administrazioak, eta eskatutakoari emandako erantzuna berrikustea galarazten du.

Hau da, espediente horiek administrazio-isiltasun negatiboa den fikzio juridikoan oinarrituta ebatzi daitezkeela iriztearen desegokitasunari eta bidegabekeriari buruz hitz egin du; izan ere, horixe da, hain zuzen ere, administrazio-jarduerarik ezaren aurreko fikzio bat, administrazio-prozedura guztietan berriazko ebazpena emateko betebeharra desagerrarazten ez duena.

Gainera, ez da ahaztu behar jasotako osasun-laguntzarekin ados ez dagoelako erreklamazio bat aurkeztu duenak isiltasun horri buruz izango duen pertzepzio txarra; horrez gain, bere kalte-ordainaren eskaerak ez du erantzunik, eta, beraz, ez daki eskaerari buruzko administrazioaren iritzia zein den.





Finean, ondare erantzukizuneko espedienteak ordenamenduan agindutako baldintzetan izapidetzea, administrazio-bidean aztertu eta ebatzita, legezko agindua izateaz gain, erabiltzaileek osasun-sistema publikoaz duten irudiarri lagundu diezaioke.

3. Hizpide dugun kasuan, ia bi urte igaro dira kexa eragin duen ondare erantzukizuneko espedientearen izapidea hasi zenetik, eta bi hilabete baino gehiago interesdunaren azken jardunetik; Osakidetzak, baina, ez du oraindik berariak ebazpenik eman.

Aurreko arrazoiengatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak– 11. b) artikuluan ezarritakoaren arabera, honako gomendio hau egin zaio Osakidetzari:

GOMENDIOA

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa) 21. artikuluan xedatutako legezko agindua bete dezala, eta berariak ebazpena eman dezala kexa hau eragin duen ondare erantzukizuneko espedientearen, gomendio honen goiburuan aipatu dena.

